



DOAKO TASUNE RANZKO BIDEAN

Andoainen, 2017ko uztailaren 5ean

Txostena egin du:

Euskararen Gizarte Erakunde
Kontseiluaren baitan biltzen den helduen
euskalduntze-alfabetatzeren sektorea
(AEK, Errioxako eta Nafarroako IKA,
Maizpide, Urrats eta Hitzez)

Txostena babestu dute:

Ilazki euskaltegia
Legazpi 6 euskaltegia
Mikelats euskaltegia
Udaberria euskaltegia
Gabriel Aresti euskaltegia
Juan Mateo Zabala euskaltegia
Bilbo Zaharra euskaltegia
Bai&By online hizkuntza-akademia
Gotzon Garitaonaindia euskaltegia
Labayru euskaltegia
Hegoalde euskaltegia
Gasteizko IKA euskaltegia

AUR KIBI DEA

0. Atarikoa

1. Oinarrizko ideiak

- A. Helduen euskalduntzea euskararen normalizazio-prozesuan
- B. Ezagutzaren unibertsalizazioaz
- C. Helduen euskalduntzea eta doakotasuna

2. Oinarrizko printzipioak

- A. Euskalduntze-prozesu osoari laguntza
- B. Ebaluazioa
- C. Leihatila bakarra
- D. Diru-inbertsioak

3. Ondorio nagusiak

ATA RIKOA

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak sorreratik hainbat proposamen egin ditu hizkuntza-normalizazioan urrats eragingarriak ematen laguntzeko, eta asmoa du, nola ez, jardun horretan jarraitzeko. Horrela, proposamen-sorta horri berri bat erantsi nahi diogu, hain zuzen ere, helduen euskalduntzearen doakotasunari buruzkoa; esku artean duzun “Doakotasuneranzko bidean” dokumentu hauxe bera, hain justu.

“ Aldarrikapen historikoa izan da Euskal Herrian euskara ikastea doakoa izatea. Hainbat arrazoi izan du euskalgintzak hori aldarrikatzeko, baina nire ustez bada gailentzen den bat: justiziazkoa da. ”

Bai Euskarari akordioaren bidez egin genuen hori 1998an. Ondoren, 2000. urtean Bai Euskararen Akordioaren Plan Estrategikoaren prestakuntzari ekin genion, eta bertan sektoreka garatutako planifikazioa prestatu genuen. 2005eko Batzar Nagusiaren Kontseiluarentzat erreferentziazko dokumentu izango zen “Hizkuntza Politika Berri eta Eraginkorra” onartu zen. 2007an hezkuntza sektoreko bazkideekin batera “Ikasle Euskaldun Eleaniztunak” proposamena mahai gaineratu genuen; eta 2013an aholkularitzen sektorearekin batera landutako “Lan Mundua Euskalduntzeko Adierazpena”.

Izan ere Kontseiluaren handitasuna bere izaeran dago, hain zuzen ere, euskalgintzako eragileen bilgune izatea da gure bereizgarria eta esku artean duzun proposamen honen oinarria ere Kontseiluaren helduen euskalduntze-alfabetatze sektorea da.

“ Justiziazkoa da, bai, herritar orori berezko hizkuntza ezagutzeko eskubidea bermatzeko politikak garatzea, eta alde horretatik ulertezina da eskubide hori egikaritzeko herritarrek ordaindu behar izatea. Eskubideez ari gara, ez kapritxoez. ”

Aldarrikapen historikoa izan da Euskal Herrian euskara ikastea doakoa izatea. Hainbat arrazoi izan du euskalgintzak hori aldarrikatzeko, baina nire ustez bada gailentzen den bat: justiziazkoa da. Izan ere, herri kohesionatua nahi badugu, herritar guztiei tresna guztiak eskaini behar zaizkie eta hor kokatu behar dugu berezko hizkuntzaren

ezagutza. Justiziazkoa da, bai, herritar orori berezko hizkuntza ezagutzeko eskubidea bermatzeko politikak garatzea, eta alde horretatik ulertezina da eskubide hori egikaritzeko herritarrek ordaindu behar izatea.

2016ko abenduaren 17an Europako hogeita hamar hizkuntza gutxitutako ehunetik gora eragilek geure eskubideak bermatzeko zer neurri hartu beharko liratekeen zehaztu genuen “Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren” bidez. Zalantzarik gabe, helduek hizkuntza gutxitua doan ikastea ere badago jasota dokumentu horretan. Izan ere, oraingoan ere ez gara ari euskaldunon edo euskaldun bihurtu nahi dutenen kapritxoez. Aitzitik, eskubideen bermeez ari gara, egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntza komunitateri bermatu beharrekoaz.

Paul Bilbao Sarria
Idazkari nagusia

GINA RRIZKO IDEIAK

A. Helduen euskalduntzea euskararen normalizazio- prozesuan

Hizkuntza gutxitu baten normalizazio-prozesuaz ari garenean bi elementu izaten ditugu beti buruan. Batetik, hizkuntza hori normalizatzeko pertsonak hizkuntza gutxitua ezagutu behar dute, eta bestetik pertsona horiek hizkuntza erabili ahal izateko espazioak behar dituzte. Biak ala biak dira beharrezkoak, baldin eta hizkuntza hori normalizatuko bada.

Kontseiluaren Batzar Nagusiak 2009ko apirilaren 25ean onartutako “Hizkuntza Politika Berri eta Eraginkorra” delako dokumentuan jaso zuen norbanakoak eta espazioak euskalduntzeari begirakoa dela hizkuntza-politikarik egokiena.

Pertsonak euskalduntzeari begira jakina da hiru bide daudela, edota hiru iturritako emaria dela. Batetik,

Gurasoen transmisioa, hezkuntza eta helduen euskalduntze-alfabetatzea. Hirurak dira beharrezkoak euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa erdietsiko badugu.

gurasoen transmisioa seme-alabei; bigarrenik, hezkuntza sistemaren bidez euskalduntzen direnak eta, azkenik, helduaroan beren burua euskalduntzea erabakitzen dutenak. Eta, nola ez, hirurak dira beharrezkoak euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa erdietsiko badugu.

Egun, lehen iturriko emaritik, alegia, guraso euskaldunek seme-alabei euskara transmititzen dietela erakusten dute datuek. Esaterako, VI. Inkesta Soziolinguistikoaren

arabera EAEn guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben

% 83,3k euskara soilik jaso du etxean, % 6,7k euskara eta erdara eta % 10ek ez du euskararik jaso.

Nafarroan, guraso biak euskaldunak izanik, seme-alaben % 69, 3k euskara soilik jaso du etxean, % 11,8k euskara eta erdara, eta % 18,9k ez du euskararik jaso. Egia da, bai, oraindik lana dagoela egiteko, eta horrek esan nahi du botere publikoen zein euskalgintzaren aldetik portzentaje horiek igotzeko ekimenak bultzatu behar ditugula.

Hezkuntzari dagokionez, ez dugu, ez, txosten honetan euskarazko irakaskuntzak izan duen bilakaeraren azterketa sakonik egingo. Jakin badakigu ikastetxeek zenbat milaka herritar euskaldundu duten, baina gogoratu behar dugu milaka herritar ere euskaldundu gabe utzi dituela eta gaur egun ere uzten dituela. Horretan ere, Kontseiluak hezkuntza sektorea osatzen duten bazkideekin belaunaldi

berrien euskalduntzea bermatzeko “Ikasle Euskaldun Eleaniztunak” izeneko proposamena aurkeztu zuen 2007an.

Azkenik, hiztun berriak jasotzeko hirugarren iturria helduena litzateke. Egia da, bai, askotan entzun izan dela helduena belaunaldi galdua zela. Alegia, belaunaldi berriek euskaldunduko zutela Euskal Herria. Denborak erakutsi du, eta erakusten jarraitzen du, planteamendu hori ez dela zuzena, izan ere, ez dago euskararen etorkizuna bermatzerik tarteko belaunaldia bermatuta ez badugu. Tarteko belaunaldi horrek erakutsiko digu, besteak beste, euskara hizkuntza osoa dela, gure artean normaltasunez erabiltzen duguna dela lanean, dela kalean, dela familian, dela edonon eta edozein testuingurutan.

B. Ezagutzaren unibertsalizazioaz

Hizkuntza bat erabiltzeko hizkuntza hori ezagutu egin behar da, eta hizkuntza horren erabilera normalizatuan eragiten duten faktoreen artean, besteak beste, hiztunen

Hizkuntzaren erabilera normalizatuan eragiten duten faktoreen artean, besteak beste, hiztunen dentsitatea ere badago. Hartara euskararen normalizazioari begirako politikaren helburuak euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa izan beharko luke.

dentsitatea ere badago. Hartara euskararen normalizazioari begirako

politikaren helburuak euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa izan beharko luke.

Lehen esan bezala, hezkuntza-sistemaren bidez, erabaki egokiak hartuz gero, gaur egun ez bezala, oso-osorik euskaldundu daitezke belaunaldi berriak, beraz, ezagutzaren unibertsalizazioa gizartearen sektore handi bati dagokionean behintzat ez dago motibazioaren diktaduraren menpe. Hezkuntza-sistemak dagokion papera bete behar du eta hori ezin da baldintzatu ustezko eskubideak aipatuz, euskara ikasteko eskubidea ez ikasteko aukeraren gaineratik kokatu behar da kasu guztietan eta arau zehatzez.

Helduen kasuan, ordea, euskararen mundura erakartzeko motibazio pragmatikoek duten indarra bereziki baliatu beharko genuke. Horretarako, hizkuntza-politika eraginkorra abiatu behar da neurri handi batez motibazio induzituak direlako motibazio

pragmatikoak, beraz, motibazio pragmatikoei eragiten dieten erabaki politikoetan dago gakoa orain erakartzerik ez dugun heldu askok pausoa eman dezaten. Hizkuntza-politikatik zenbat eta zurrunago jokatu orduan eta indar handiagoa egin ahalko dugu. Beraz, lehenengo eta behin, ongi aztertu behar ditugu zein diren herritarren portaera aldatzera eramango duten erabakiak eta ondoren, politikaren bitartez eragin behar dugu ahalik eta sektore zabalenetara iristeko.

Normalizazioaren klabea da ezagutzara erakartzen dugun herritar bakoitza hiztun aktibo bilakatzea euskaraz arituko diren zirkuituetan integratuz.

Trakzio-lana egin dezaketen erabakien artean bi bereziki indartsuak dira: alde batetik, Administrazioa euskalduntzeko, eta ondorioz euskaraz lanean hasteko, epe muga zehatza jartzea salbuespenik gabe tarte horretan inplikaturik egongo diren langile guztiak euskalduntzeko bideak jarritz eta elebakarren kontratazioak utziz eta bestetik, enpresa zerbitzu emaile guztiei zerbitzua euskaraz emateko epe muga bat jarritz. Bi erabaki horiek euskaltegiak beteko dituzte, asko baitira erabakiok inplikitzen dituzten herritarrak. Ikerketa baten arabera, esate baterako, gazteen % 60k du bizi asmoen artean Administrazioaren batean lan egitea. Euskara beharrezkotzat jotzen bada zuzenean inplikitzen dugu euskararen aldeko dinamikan herritarren parte handi bat. Gainera, bidea egiten zaio belaunaldi berri euskaldunari haren euskalduntasuna lan alorrean ere garatzeko.

Berezko hizkuntza ezagutzea eskubideen eremuan kokatzen dugu, eta beraz, botere publikoek eskubide hori bermatu behar dute, eta, noski, ezagutza bermatzea ulertzen dugu herritarrari inolako kosturik sortu gabe.

Normalizazioaren klabea da ezagutzara erakartzen dugun herritar bakoitza hiztun aktibo bilakatzea euskaraz arituko diren zirkuituetan integratuz. Bi elementu horiek estu koordinatzetik pasatzen da normalizazio prozesuaren arrakasta.

C. Helduen euskalduntzea eta doakotasuna

Aldarrikapen estrategikoa izan da euskalgintzan helduen euskalduntzearen doakotasuna. Hiru arrazoi nagusi izan dira beti aldarrikapen hori janzteko. Batetik, berezko hizkuntza ezagutzea eskubideen eremuan kokatzen dugu, eta beraz, botere publikoek eskubide hori bermatu behar dute, eta, noski, ezagutza bermatzea ulertzen dugu herritarrari inolako kosturik sortu gabe. Ez luke logikarik oinarritzko eskubide horren defentsa egin eta, ondoren, eskubide hori baliatu nahi duen herritarrari kostu ekonomikoa sorrarazteak.

Bigarrenik, egia da, bai, hezkuntza-sistemari esker belaunaldi berriak gero eta euskaldunagoak datozela, baina egia ere bada, egun indarrean dagoen hezkuntza-sistemak oraindik milaka eta milaka herritarri berezko

hizkuntza ez ezagutzea ahalbidetzen diela. Hartara, botere publikoek badute erantzukizuna bidegabekeria horiek konpontzeko. Kasu batzuetan, gainera, euskararen estatus ofizialaren ondorio juridikoen arabera ikasle guztiek berezko hizkuntzaren ezagutza egokia izan beharko lukete derrigorrezko

Egun indarrean dagoen hezkuntza-sistemak oraindik milaka eta milaka herritarri berezko hizkuntza ez ezagutzea ahalbidetzen die. Neurri zuzentzaileak behar dira: derrigorrezko hezkuntzak ahalbidetu ez dien euskalduntze-prozesua doan egin ahal izatea.

hezkuntza amaitutakoan. Esan bezala, gaur egun hori ez da gertatzen, eta neurri zuzentzaileak jartzea litzateke normalena, alegia, derrigorrezko hezkuntzak ahalbidetu ez dien euskalduntze-prozesua doan egin ahal izatea.

Hirugarrenik, egun Euskal Herriko hainbat administrazioetako langileei euskalduntze-prozesua ordaintzen diete botere publikoek. Kasu horretan ere, erabat desorekatua iruditzen zaigu herritar batzuei prozesua ordaintzea, eta beste herritar batzuek prozesua ordaindu behar izatea. Hau da, herritarren arteko bereizkeria sortzen da. Hori konpontzeko bide bakarra euskalduntze-prozesua herritar guztientzat doakoa izatea litzateke.

Azkenik, Euskal Herrian izan dugun aldarrikapen historiko honi lotuko genioke duela hilabete batzuk Europa mailan egindako beste bat. 2016ko abenduaren 17an Donostiako Kursaal

jauregian, hogeita hamar hizkuntza-komunitate baino gehiagoko ehunetik gora eragileok “Hizkuntza Eskubideak

Euskal Herriko hainbat administrazioetako langileei euskalduntze-prozesua ordaintzen diete botere publikoek. Kasu horretan ere, erabat desorekatua iruditzen zaigu herritar batzuei prozesua ordaintzea, eta beste herritar batzuek prozesua ordaindu behar izatea.

Bermatzeko Protokoloa” aurkeztu genuen eta bertan egoera gutxiagotuan dauden/gauden

komunitateen eskubideak bermatzeko hartu beharreko 185 neurriak definitu genituen, beti ere Bartzelonan hogeitau urte lehenago onartu zen “Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala” oinarri.

Helduek hizkuntza gutxitua ikasteko eskubideaz ere zenbait neurri bildu zituen Protokoloak, hain zuzen ere hezkuntzaren eremuko D ataleko 91-95 neurriak.

Egungo egoera irudikatze-aldera, jarraian EAEko ikasleek ordaindutako matrikulak bildu ditugu, 2016ko maiatzaren 27an, HABEko zuzendariak berak emanak.

“Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa”: D ataleko 91-95 neurriak

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

1.	Hizkuntza gutxitua ikasi nahi duten herritarrek dohainik ikasteko aukera dute.	91
2.	Ikastaroak lurralde osoan eskaintzen dira, herri-ekimenekin elkarlanean.	92
3.	Hizkuntza gutxitua irakasten da langabetuei zuzendutako trebakuntzan.	93
4.	Hizkuntza gutxitua irakasten da helduen etengabeko prestakuntzan.	94
5.	Hizkuntza gutxituan alfabetatzeko ikastaroak dohainik ematen dira.	95

EAEko ikasleen matrikulak: 2016ko maiatza (Iturria: HABE)

EKIMEN SOZIALEKO EUSKALTEGIETAKO IKASLEEK		EUSKALTEGI PUBLIKOETAKO IKASLEEK		GUZTIRA	OHARRAK
IKASTURTEA	Diru-kopurua	EKITALDIA	Diru-kopurua		
2008-2009	17.867.945 €	2008	3.249.920 €	21.117.866 €	
2009-2010	17.422.793 €	2009	3.233.393 €	20.656.187 €	Desagertu: Matiko-Troka eta Bai&By Arrasate
2010-2011	17.312.230 €	2010	2.992.714 €	20.304.945 €	
2011-2012	15.835.520 €	2011	2.878.337 €	18.713.857 €	Desagertu: Bai&By Getxo
2012-2013	14.306.301 €	2012	2.635.463 €	16.941.764 €	
2013-2014	13.274.648 €	2013	2.264.677 €	15.539.326 €	
2014-2015	12.907.098 €	2014	2.296.990 €	15.204.088 €	

· Ekimen sozialeko euskaltegi homologatu eta autoikaskuntzarako zentroak: urrian, ikasturtearen amaieran, aurkeztutako sarreraren eta gastuen laburpena (datuak ikasturteka).

Udal euskaltegiak: otsailean aurkeztutako aurreko urteko sarreraren eta gastuen laburpena (datuak urteka).

OINA RRIZKO PRIN TZI PIOAK

A. Euskalduntze-prozesu osoari lagundu


Pertsona baten euskalduntze-prozesua noiz bukatzen den zaila da zehazten. Egia da, bai, egun administrazio publikoetako lanpostuei begira hizkuntza-eskakizunen sistema jarrita dagoela, eta ondorioz, lanpostu bakoitzari zeini bere eskakizuna esleitzen zaiola lanpostu horretako behar komunikatiboek langilearen

Euskalduntze-prozesu osoa amaitutzat ematen da erabiltzailea gaitua denean, hain zuzen ere, gaitasun operatibo eraginkorra duenean, C1 maila. Euskalduntze-prozesu osoari lagundu behar diote botere publikoek.

gaitasun komunikatiboekin bat egin dezaten.

Halere, eta gure proposamenari dagokionez, eztabaida ez dugu kokatu nahi lanpostu zehatz baterako pertsona batek izan behar dituen gaitasun komunikatiboetan. Aitzitik, herritarrek beren burua osoki euskalduntzeko lortu beharreko gaitasunak dira guretzat oinarri.

Kontseiluak ulertzen du pertsona baten euskalduntze-prozesua amaitu egiten dela pertsona hori euskal elebidun/eleaniztun bihurtzen denean. Horrela, herritar horrek bizitzako funtzio guztiak euskaraz egiteko gaitasunak ditu, ahoz zein idatziz. Horrexegatik, eta Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoan oinarrituz, euskalduntze-prozesu osoa amaitua izango du erabiltzaile gaitua denean, hain zuzen ere, gaitasun operatibo eraginkorra duenean, C1 maila.



Iruditzen zaigu, beraz, euskalduntze-prozesu osoari lagundu behar diotela botere publikoek. Gerta liteke, noski, herritar guztiek prozesua mutur horretara eraman nahi ez izatea, edota gaitasun baxuagoekin nahikoa izatea haien eguneroko bizitzan euskaraz bizi ahal izateko. Halere, gure ustez doakotasuna prozesu osoari lotu behar zaio, eta horrexegatik, hain zuzen ere, Europako Erreferentzia Markoari erreparatzen badiogu, euskalduntze-prozesuaren amaiera C1 mailako gaitasun komunikatiboetan kokatzen dugu.

Ondoko herrialdeei begiratzen badiogu, egia da, bai, herritartasuna lortzeko

eskatzen den hizkuntza-gaitasuna B2 dela, baina uste dugu gure kasuan botere publikoei badagokiela herritarrei erabiltzaile gaituaren gaitasun komunikatiboak erdiesteko prozesuaren doakotasuna bermatzea. Izan ere, ondoko herrialde batzuetan ere ikusi ahal izan dugu lan egiteko C1 maila hori eskatzen zaiela atzerriko herritarrei.

B. Ezagutzen ebaluazioa

Funts publikoen erabilera egokiaren aldeko apustua egiten du Kontseiluak. Beti esan izan dugu diru kopuru egokia inbertitu behar dela, baina bai eta egoki

inbertitu ere. Hartara, botere publikoek egiten duten inbertsioari positiboki erantzun behar diote laguntza jasotzen duten herritarrek.

Kontseiluaren iritziz bi irizpideren arabera zehaztuko da euskalduntze-prozesua doakoa duten herritarren aprobetxamendua.

Lehenik eta behin eskola-asistentzia dugu. Zalantzarik ez dago, herritar batek euskalduntze-prozesua euskaltegian egiten badu, bertako erritmoaren, metodologiaren eta bestelakoen mende egongo dela. Gainera, euskalduntze-prozesua kolektiboa ere bada, ikasgelak taldekatu egiten direlako.

Horrela, ikasleek gutxieneko % 75eko asistentzia bermatu beharko dute euskalduntze-prozesua doakoa izan dakien. Asistentzia da, izatez, neurgarri objektiboena ikasle horrekin egiten den inbertsioa orekatua dela

Gutxieneko asistentzia da ebaluaziorako neurgarri objektiboen. Gure proposamenean saihestu egin dugu ikasmaita gainditu behar izatea prozesuaren doakotasuna erdiesteko. Euskalduntze-alfabetatze zerbitzuak 2.000 orduko ikastordukreditu muga izatea proposatzen da.

ondorioztatzeko. Horrexegatik, gure proposamenean saihestu egin dugu ikasmaita gainditu behar izatea prozesuaren doakotasuna erdiesteko. Uste dugu, eta urtetako esperientziak hala erakutsi digu, pertsona bakoitzak euskalduntze-prozesua modu

desberdinean daramala. Horretaz gain, badira bestelako elementu edo faktoreak euskalduntze-prozesuaren abiadura moteldu dezaketenak. Horrexegatik, orekatuena ikasleei gutxieneko asistentzia eskatzea dela ondorioztatzen dugu.

Horrek ekar lezake bestelako ondorio desegokirik, hain zuzen ere, euskalduntze-prozesua kronifikatzea. Horrexegatik, eta aurrekoaren neurri zuzentzaile gisa euskalduntze-alfabetatze zerbitzuak 2.000 orduko ikastordukreditu muga izatea proposatzen dugu.

C. Leihatila bakarra (EAErako proposamena)

Gaur egun maila desberdinetako instituzioek egiten dituzte ekarpenak beren burua euskalduntzen ari diren herritarrei kostua jaisteko. Udalak, mankomunitateak, aldundiak,

Jaurilaritza... Ate desberdinak jotzen dituzte herritarrek.

Anabasa horrek hainbat alboko kalte-ondorio eragiten dizkie herritarrei, besteak beste, autonomia erkidego berean ikasleak bizi diren

Autonomia erkidego berean, ikasleak bizi diren edo erroldatuta dauden herriaren araberrako kostuak ordaindu behar izaten dituzte beren burua euskalduntzeagatik.

edo erroldatuta dauden herriaren araberrako kostuak ordaindu behar izatea beren burua euskalduntzeagatik.

Euskalduntzearen doakotasuna nola ulertzen dugun azaltzea dagokigu,

ondorengo proposamena testuinguru egokian txertatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza sistemak bermatu behar du derrigorrezko hezkuntzaren amaieran ikasleek bi hizkuntza ofizialak ezagutzea. Hori ondorioztatzen da, behinik behin, euskararen ofizialtasunetik. Gurean, ardura hori edo eskubide horren bermea Eusko Jaurlaritzari dagokio bermatzea.

Gauzak horrela, erabat logikoa litzateke, helduen euskalduntzearen kasuan ere, hain zuzen ere, berezko eta ofiziala den hizkuntzaren ikaskuntzaren finantzazioa autonomia erkidegoko gobernuaren eskuduntza eta beharra izatea. Horretarako, gainera, Eusko Jaurlaritzak funtzio hori bete beharko lukeen erakunde autonomiaduna baduela irizten dugu: HABE.

Hortaz, HABE izango da helduen euskalduntzearen zerbitzu publiko

HABE izango da helduen euskalduntzearen zerbitzu publiko unibertsala kudeatuko duena. Herritarren berdintasun-printzipioaren izenean, euskaltegietan, publikoetan zein herri ekimenekoetan, ezingo da matrikulan alderik izan.

unibertsala kudeatuko duena, eta bertatik zentralizatuko da guztia. Eta, bai, unibertsala dela diogu; izan ere, edozein dela ere ikaslearen bizilekua edota aukeratutako euskaltegia, matrikula bera ordainduko du. Horretarako, ikas-modulu bakoitzaren matrikula-tasa ofiziala izango da, eta ikasturte bakoitzean HABEk

jakinaraziko du. Herritarren berdintasun-printzipioaren izenean, euskaltegietan, publikoetan zein herri ekimenekoetan, ezingo da matrikulan alderik izan.

D. Diru-inbertsioak

Zerbitzu publikoa den heinean, helduen euskalduntzearen zerbitzuaren kostuaren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzak (HABEren bitartez) hartu behar du bere gain, ikasleek, gehienez, kostu horren % 5-10 bitartekoa ordainduko luketela.

Nagusiki, honako irizpideetan oinarritu da kostu azterketaren proposamena:

1. Kostuen azterketa estandarra kalkulatzeko 5.000 eskola orduko euskaltegi hipotetikoa definitu da.
2. Jarduera eta kostuak definitzeko, udal euskaltegien erreferentzia hartu

da eta erreferentzia horri eskola publiko eta kontzertatuen (ikastolen) arteko aldeak aplikatu zaizkie (+ % 5 eskola orduetan eta - % 5 soldatatan).

3. Bestelako parametroen egokitzapenak excel orrian bertan jaso dira.

Finantzazio publikoaren maila zehazteko, uste dugu, adostuko den

kostu berriak ezin duela egun ikasleek ordaintzen duten matrikula-sarian eragin eta, beraz, finantziazio sistema berriaren gainkostuak finantziazio publikoaren bidez ziurtatu beharko direla.

Aurreko irizpideen ondorioz, euskaltegien egoera normalizatutzat hartu ahal izateko **orduko kostua 93,24 eurotan** kokatu beharko litzateke eta

kopuru hori KPlaren bilakaeraren arabera egokitu beharko litzateke urtero.

Ikasleek, gehienez, kostu horren % 5-10 bitartekoa ordainduko lukete.

	HABEK ORDAINDU ¹		IKASLEEK ORDAINDU ²			EUSKALTEGIEK KOBURATU	
	Guztira	Talde orduko ³	Guztira	Eskolorduko ⁴	Talde orduko ⁵	Guztira	Talde orduko
Gaur egun	18 milioi	37,24 €	12 milioi	± 2,0 €	± 20 €	30 milioi	± 57,24 €
1. urtea	24,2 milioi	50 €	9,5 milioi	± 1,6 €	± 16 €	33,7 milioi	± 66,08 €
2. urtea	30,5 milioi	63 €	7 milioi	± 1,2 €	± 12 €	37,5 milioi	± 74,92 €
3. urtea	36,7 milioi	75,76 €	4,5 milioi	± 0,8 €	± 8 €	41,2 milioi	± 83,76 €
4. urtea	42,9 milioi	88,58 €	2 milioi	± 0,46 €	± 4,66 €	45,1 milioi	93,24 € ⁶

+ KPI
+ KPI
+ KPI
+ KPI

¹ Prozesuaren amaieran, koste osoaren % 90-95.
² Prozesuaren amaieran, koste osoaren % 5-10.
³ Berezko ekimenezko aurrez aurreko jardueraren diru-laguntza.
⁴ Gaur egungo prezio hau oso gutxi gorabeherakoa da, ikaragarritzko aldeak baitaude egungo matrikula prezioetan. Baina, HABErekiko akordioa izenpetzen denetik aurrera, zutabe honetako prezioak izango lirateke gehienezko matrikula-tasak. Prozesuaren amaieran prezio hauek euskaltegi guztiek bete beharrekoak lirateke; ez gehiago, ezta gutxiago ere. Bitartean, udalek emandako diru laguntzekin arinduko lirateke ikasleen matrikula-tasak.
⁵ Batez beste, 10 ikasleko ratioa aplikatu dugu, kalkuluak errazteko.
⁶ 2015-16 ikasturtean finantziazio lan-taldean jasotako erreferentzia.

ONDORIO NAGU SIAK

Sarreran esan bezala, txosten honen bidez Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak proposamen zehatza egin nahi dio Eusko Jaurlaritzari euskalduntze-prozesuaren doakotasunaren baitan. Kontuan izan behar dugu agintean dagoen Gobernuak eratzeko itunean bertan jaso egin zela helburu gisa euskararen gizarte-hazkundera finkatzea, euskal hiztunen kopurua handituz eta hizkuntza-gaitasuna hobetuz; bai eta helduek B2 mailara arte euskara doan ikasi ahal izateko prozesua amaitzea ere.

Horiek guztiak kontuan hartuta, txostenean aipatu diren honako ideiak berretsi nahi ditugu ondorio gisa:

a. Euskalduntze-prozesu osoari lagundu behar zaio. Ez, bakarrik, erabiltzaile independente izan artekoari.

b. Doakotasuna bermatuko da, ikaslearen aprobetxamenduaren

baitan. Horretarako, % 75eko asistentzia bermatuko du.

c. Euskalduntzearen doakotasuna Eusko Jaurlaritzaren eskumena izango da, eta horretarako leihatila bakarra egongo da HABEren bitartez.

d. Inbertsio ekonomiko egokiak ahalbidetuko dira euskalduntze-prozesuaren doakotasuna bermatzeko.



www.kontseilua.eus



www.twitter.com/kontseilua



www.facebook.com/EuskararenKontseilua